## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1. Zer harturik zuen berekin anaia zaharrenak?
2. Zer xede zuen? Nor utzi zuen etxean?
3. Nor ikusi zuen bidean? Zer eman zion?
4. Amak zer ikasi zion mutiko horri?

## (II) 10. ZAZPI OHOINAK 1

Behin baziren bi anaia. Ama berrikitan hila zuten, eta, egun batez, zaharrena etxetik abiatu zen, fortuna behar zuela egin.

Ogi handi bat berekin harturik, makila eskuan athera zen beraz herritik, bere anaia gaztea etxean utzirik:

«Ago hi hemen, eta gauzak oro ongi heltzen balinbazaizkit, badukek gozo gu bientzat ondoko egunetan.»

* * *

Joan, joan, behti joan, lau-bost egunen buruan kausitzen da oihan handi handi bati hurbil. Bere ogi alimaletik koa doi-doia gelditzen zitzaion orai, eta nihon fortuna guti zuen ordu arte eginik.

Hor, oihanetik heldu, ikusten du atxo xahar xahar bat, umatua, bi plegu kasik egina, herrestaka baitzabilan gaixoa:

«Karitate bat, othoi, jaun gaztea, Jainkoaren izenean...

Ori, gaixoa, zuhaur bezen beharrari ari zaizko galdez. Bainan, —Jainkoak bere lorian duela!— gure ama zenari entzun eta ikasi diot, bere guttitik ere behar zaiola bethi eman eskaleari... Ogi-kosko hau harrazu beraz othoi, eta gutiz barka. Gogor aire bat badu segurki, bainan, gaixoa, ez dut bertzerik emaiteko.

BARBIER APEZA

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Ago hi hemen 32. Heltzen bazaizkit
33. Badukek gozo 34 Gelditzen zitzaion
35. Ikasi diot 36 Behar zaiola

### 31. EGON. Impératif. Formes usuelles

| | | |
|---|---|---|
| Hi | hago | = reste |
| Zu | zaude | = restez |
| Hura | bego | = qu'il reste |
| Gu | gauden | = restons |
| Zuek | zaudezte | = restez |
| Hek | beude | = qu'ils restent |

### 32. IZAN. Régime indirect. Indicatif Présent - Pluriel

Hek dire = ils sont

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hek (eux) | zaizkit | (à moi) | = ils me sont |
| —"— | zaizkizu | (à vous) | = ils vous sont |
| —"— | zaizkio | (à lui) | = ils lui sont |
| —"— | zaizkigu | (à nous) | = ils nous sont |
| —"— | zaizkizue | (à vous) | = ils vous sont |
| —"— | zaizkie | (à eux) | = ils leur sont |

Indicatif Présent - Singulier

Zu zira = vous êtes

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zu (vous) | zitzaizkit | (à moi) | = vous m'êtes |
| —"— | zitzaizkio | (à lui) | = vous lui êtes |
| —"— | zitzaizkigu | (à nous) | = vous nous êtes |
| —"— | zitzaizkie | (à eux) | = vous leur êtes |

Ez nahastekatzeko zaizkit eta zitzaizkit

Ni naiz = je suis

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ni (moi) | nitzaizu | (à vous) | = je vous suis |
| —"— | nitzaio | (à lui) | = je lui suis |
| —"— | nitzaizue | (à vous) | = je vous suis |
| —"— | nitzaie | (à eux) | = je leur suis |

### 33. UKAN Potentiel Probable. Présent

C.D.S. Je peux l'avoir ou je dois l'avoir C.D.P

| C.D.S | C.D.P |
|---|---|
| Nik duket = je peux l'avoir | N. ditutzket = je peux les avoir |
| Hik dukek = je peux l'avoir | Hi diratzkek = tu peux les avoir |
| Hek duken = tu peux l'avoir | Hi ditutzken = tu peux les avoir |
| Zuk dukezu = vs pouvez l'avoir | Z. ditutzketzu = vs pouvez les avoir |
| Harek duke = il peut l'avoir | Ha dituzke = il peut les avoir |
| Guk dukegu = ns pouvons l'avoir | G. ditutzkegu = ns pouvons les avoir |
| Zuek dukezue = vs pouvez l'avoir | Z. ditutzketzue = vs pouvez les avoir |
| Heiek duketε = ils peuvent l'avoir | H. ditutzkete = ils peuvent les avoir |

### 35. UKAN. Conj. à dble cplt - INDICATIF PRÉSENT

C.D.S Eni, Heri = A moi C.I.S.

| | |
|---|---|
| Nik diot = je le lui ai | Guk diogu = nous le lui avons |
| Zuk diozu = vs le lui avez | Zuek diozue = vous le lui avez |
| Harek dio = il le lui a | Heiek diote = ils le lui ont |